

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
ANDER PRADOS OTAMENDI
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
NEREA YEREGUI BALDA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

BERTARATU EZ DIRENAK

IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olló

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko apirilaren 30ean arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olló idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2024-03-27KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu diren 2024-03-27 bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Valentziako San Jose eskola

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko apirilaren 9an, 16/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Valentziako San Jose eskolari frontoia eta bere instalakuntzak apirilaren 21etik apirilaren 22ra erabiltzeko baimena ematea.

2. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko apirilaren 16an, 17/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko martxoaren 5ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak onartzea.

3. Aitor Goikoetxea Iriarte

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko apirilaren 16an, 18/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Aitor Goikoetxea Iriarteri Beteluko udaletxeko erabilera anitzeko gela erabiltzeko baimena ematea apirilaren 21eko goizerako.

4. Mikel Otamendi Ezkurdia

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko apirilaren 24an, 19/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 2. Poligonoko 5. Lursailean dagoen Juangonea etxean bi hutsarte irekitzeari dagokionez, Mikel Otamendi Ezkurdinari egindako ateen eta leihoen egoeraren planoak aurkezteko eskatzea.

5. Gas Natural Redes GLP SA

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko apirilaren 24an, 20/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: San Pedro kalean gas kanalizatua hornitzeko PGL plantaren perimetroa hesitzeari dagokionez, eskatzaileari PGLko estazioak kokapen-eremuan duen kokapen planoak eta instalazioaren xehetasun planoak aurkezteko eskatzea.

6. Ignacio Yeregui Lopez

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko apirilaren 24an, 21/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Ignacio Yeregui Lopezi Beteluko 2. Poligonoko 43. lurzatian 27 oiloendako abeltzaintza-ustiapen estentsiboko jarduera kaltegabea instalatzeko baimena ematea.

7. Araxes Guraso Elkartea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko apirilaren 24an, 22/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Araxes Guraso Elkarteari maiatzaren 17an eta 18an eskolako patioa, jangela, sukaldea edo frontoia erabiltzeko baimena ematea, umeen eguna dela eta.

3. JASOTAKO IDATZIAK

1.- Beteluko jai batzordea

Ander Elizalde Zubillaga Beteluko Jai Batzordearen izenean, 2024ko Beteluko San Pedro festak direla eta, ondorengo eskaera hauek egin ditu:

- Ekitaldi ezberdinak antolatzeko plaza erabiltzeko baimena.

- Ekitaldi ezberdinak antolatzeko frontoia, eskola kanpoko futbol zelaia eta parke ingurua erabiltzeko baimena.
- Ekitaldi ezberdinetan erabiltzeko udalaren altaboz portatila eta proiektorea erabiltzeko baimena.
- Udaletxeko Oihukako gela erabiltzeko baimena.

Hau ikusirik honakoa onartu du udalbatzak aho batez:

Lehenengoa.- Eskatutako baimen guztiak ematea.

Bigarrena.- Leku eta tresna horietan izan daitekeen edozein kalte, eskatzailearen erantzunkizuna izango da.

2.- Beteluko jai batzordea

Ander Elizalde Zubillaga Beteluko Jai Batzordearen izenean, 2024ko Beteluko San Pedro festak direla eta, ondorengo eskaera hauek egin ditu:

- Herriko argiteriaren argindarra erabiltzeko baimena.

Hau ikusirik honakoa onartu du udalbatzak aho batez:

Herriko argiteriaren argindarra erabiltzeko baimena ematea.

3. Euskal Herria mendi erronka

Iñigo Orejak Euskal Herria Mendi Erronkaren izenean, ekainaren 1ean egingen den lasterketaren kariatara, lasterketa Beteluko lurretatik pasatzen denez gero, eragozpenik balego antolakuntzari ohartarazteko galdegin du.

Hau ikusirik, honakoa onartu du udalbatzak aho batez:

Euskal Herria mendi erronka lasterketaren antolatzaileei jakinaraztea Beteluko Udalak ez duela inongo eragozpenik.

4. Kilometroak

2024. urtean ikasberri ikastolak Gipuzkoako Ikastolen guztien jaia den Kilometroak antolatuko du 2024ko urriaren 6an Azpeitian. Jai horretarako dirulaguntza eskaera egin dio Beteluko Udalarari.

Hau ikusirik, honakoa onartu du udalbatzak aho batez:

Dirulaguntzarik ez ematea Beteluko Udalak Nafarroa Oinezi eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren kooperazio programari ematea baino ez baitu aurreikusi.

4. BETELUN DAGOEN ARAXES IBAIKO GOIKOLA ATSEDENLEKUAREN ETA BAINUEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA

Udalbatzari honako hau proposatzen zaio:

Betelun dagoen Araxes ibaiko Goikola atsedeen lekuaren eta bainuen erabilera arautzen duen udal ordenantzaren hasierako onarpena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoaren arabera, espedienteak jendaurrean izanen da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, auzotarrek eta legezko interesdunek espedienteak aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharak egin ditzaten.

Arazko epean erreklamaziorik egiten ez bada, ordenantza behin betiko onartutzat joko da.

Alkateak erabakia bozkatera ekarri du, eta udalbatzak aho batez onartu du.

5. GARBIKETA LAGUNTZA KONTRATUA. ESLEIPENA

2024ko otsailaren 27an egindako Beteluko Udalbatzaren osoko bilkuran Beteluko udal instalakuntzak eta eskola egoitzak garbitzeko lanetarako laguntza kontratua Zu eta Biok S. Coop enpresari esleitu zion Beteluko Udalak,

Kontratua formalizatu aurretik baina, 2024ko martxoaren 22an Zu eta Biok Coopek idatzia aurkeztu zuen Beteluko Udalean kontratuari uko eginez

2024ko martxoaren 27an egindako Beteluko udalbatzaren osoko bilkuran, Zu eta Biok S. Coopi esleitutako kontratua deusezteko eta lizitazioan bigarren postuan gelditutako Pulen Limpieza y Mantenimiento de Infraestructuras SLri klausula administratiboen plegu partikularraren 13. Klausulan agertzen den dokumentazioa eskatzeko akordioa hartu zen.

Aipatutako enpresak dokumentazioa epez kanpo aurkeztu zuen, errekerimendua 2024ko apirilaren 4ean jaso eta dokumentazioaren aurkezpena apirilaren 12an egin baitzuen. Dokumentazioa aurkezteko zazpi egun naturaleko epea iragan zen hortaz.

Hori dela eta, hirugarren sailkatuari, Venus Margarita Campos Walsh, 13. Klausulako dokumentazioa aurkezteko errekeritu zitzaion. Epe barnean, dokumentazio guztia aurkeztu zuen.

Hori dela eta, Kontratu publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 55.8 eta 161.5 artikulua eta klausula administratiboen pleguen 13. Klausula kontuan harturik, udalbatzak

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Pulen Limpieza y Mantenimiento de Infraestructuras SL lizitazio prozeduratik baztertzea, ez baitu beharrezko dokumentazioa emandako epean aurkeztu.

BIGARRENA. Beteluko udal instalakuntzak eta eskola egoitzak garbitzeko lanetarako laguntza kontratua ondoko honi esleitzea:

Enpresa: Venus Margarita Campos Walsh **IFZ.:** 73036979L

Helbidea: Kale Nagusia 7, 1 ezkerra, Betelu.

Lizitazio prezioa: 28.115,70 euro

Esleipen prezioa: 28.100,00 euro

Lizitazio prezioarekiko aldaketa: %0,06 beherantz.

HIRUGARRENA. Esleipenaren eraginkortasuna eten egingo da hamar egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita, bidalketa hori bitarteko elektronikoen bidez egiten bada, edo hamabost egun naturaleko epean, bidalketa bitarteko ez elektronikoen bidez egiten bada.

LAUGARRENA. Beteluko Udaleko alkateari ahalmena ematea kontratua eta horren ondoriozko agiri guztiak sinatzeko eta formalizatzeko.

6.- UDAL ERAIKINAREN ESTALKIA BERRITZEKO ETA AISLAMENDU TERMIKOA JARTZEKO OBRA KONTRATUARI DAGOKIONEZ, CONSTRUCCIONES KEREJETA SLK FIDANTZA ITZULTZEKO EGINDAKO ESKAERA

Koldo Kerejetak Construcciones Kerejeta SLren izenean, eskaera aurkeztu zuen Araizko Udalean 2024ko martxoaren 31n. Honen bidez, Beteluko ostatuaren estalkia eraberritzeko obregatik 2018ko urriaren 17an Beteluko Udalaren kontu korrontean jarritako fidantza itzultzeko eskatu du.

Apirilaren 13ko Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 70.2 artikulua arabera, bermea kontratistak betebeharrak betetzearekin lotuta egonen dira berme-epea amaitu arte. Foru Lege horren 159.1 artikulua arabera, berme-epea harrera edo adostasun datatik hasita kontatzen da.

2019ko martxoaren 27an, obren azken harrera-akta sinatu zuten Miguel Javier Recalde Goldaraz Beteluko Udaleko alkateak, Francisco Javier Chocarro San Martín zuzendari fakultatiboak eta Koldo Kerejeta Aierbe jaunak, Construcciones Koldo Kerejeta SL enpresaren ordezkari gisa.

Hau ikusirik udalbatzak honakoa erabaki du:

Lehenengoa: Eskaera onartzea eta beraz fidantza itzultzea, 5 urteko berme-epea iragan baita.

Bigarrena: Akordio honen berri Construcciones Kerejeta SLri jakinaraztea.

Alkateak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

7. FAKTUREN ONESPENA

Iberdrola	Argiztapen publiko (martxoa)	325,04 €
Chocarro y Urmeneta	Emit 2412	1.742,40 €
Iberdrola	¿???	195,46 €
Iberdrola	C/ Mayor 7-2ezkerra (marytxoa)	8,85 €
Iberdrola	Urberoa (martxoa)	6,47 €
SGAE	2024ko tarifa	748,88 €
Serlimpia	F. 240087	71,39 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 37	82,28 €
Taxilon	F. 941	150,70 €
Goierer	Eskolako argia (martxoa)	984,42 €
Goierer	Udaletxeko argia (martxoa)	1.117,35 €
Zhongguo Market (Igorrek ordain)	Material erosketa	54,94 €
Comercial Fervis	F. 885	169,96 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A 9/2024	90 €
Lyreco	F 7050371891	96,05 €
Hostal Betelu	F. 46434 (San Miguelen bisita)	597,70 €
Miguel Ramon Olano	F. 17/2024	151,25 €
Miguel Ramon Olano	F. 18/2024	272,25 €
Orona	F. 2404116175	355,74 €
Wikai	F. 1/5350 (martxoa)	112,12 €
Venus Campos Walsh	F. DFA_22 (martxoa)	2.734,59 €
Venus Campos Walsh	F. DFRA_22 (martxoko zakarrontziak)	123,42 €
IDM LIFE SAVING	F. 2/000549	128,84 €
Miguel Ramon Olano	F. 20/2024	2.208,25 €
Gizarte Zerbitzuak	2024ko kuotaren lehenengo %50	5.654,93 €
Urzubi	F. A299	610,81 €
Rekalde Zurgindegia	F. 706-24	834,90 €
Rekalde Zurgindegia	F. 707-24	46,61€
Rekalde Zurgindegia	F. 708-24	98,01 €
Codisna	F. 24133	279,51 €
Animsa	F. SCA 65	1.166,29 €
Oihane Soroa Muguerza	F. 2023-2 (2022-2023 kontabilitatea)	2.087,50 €

Ofico	Apirileko aholkularitza	115,24 €
Araizko Udala	2023ko urtarrila-uztaila idazkari gastuak	15.968,8 3 €
Araizko Udala	2023ko abuztua-abendua idazkari gastuak	17.367,8 1 €
Ascensores Arga sl	Igogailuaren mantenua	130,68 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 44	36,30 €
Ignacio Eraso Ochotorena	F. 45	802,23€
Euro Depot	Auzolanerako materiala	275,90 €
Suministros Moncayo	Eskolako extintoreen mantenua	525,90 €
Venus Campos Walsh	Apirileko garbiketak	2.734,59 €
Venus Campos Walsh	Apirileko zakarrontzien bilketa	154,28 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Rosa janaridenda	Martxoko janaria	62,02 €
Rosa janaridenda	Martxoko garbiketa materiala	31,70 €
Kide Aholkularitza	Martxoko lan aholkularitza	190,58 €
Maite harategia	Martxoko bazkariak	741 €
Seikide	Apirileko aholkularitza	190,58 €
	DENETARA:	62.634,5 5 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

8. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederlatziak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.